

# Hizkuntza erabilerak ematen du gaitasuna

MIKEL SANTESTEBAN INSAUSTI

IKERTZAILE DOKTORE EGONKORRA

GOGO ELEBIDUNA IKERTALDEA (HIZKUNTZALARITZA ETA EUSKAL IKASKETAK SAILA)

«**E**lebiduna izateko, bi hizkuntzak etxean txikitatik ikasi behar ote dira? Zer da elebiduna izatea?». Lagun askok, elebitasuna ikertzen duen hizkuntzalaria naizela esaten die-danean, horrelako galderak egiten dizkide. Erantzun errazenarekin hasten naiz beti: bi hizkuntza (edo gehiago) erabiltzen duen edonor da elebiduna. Baina bizitzan, eta are gutxiago zientzian, ez dago erantzun errazik onartzen duen galderarik. Euskara eskolan edo euskaltegian ikasi duten lagun gehienentzat errazago da gazteleraz hitz egitea euskaraz hitz egitea baino. Eguneroko bizitza batez ere euskaraz egiten dutenek pareko gaitasuna lortuko dute bi hizkuntzetan, eta, agian, euskaraz gazteleraz baino erosoago aritzera ailegatuko dira. Baina horretarako gakoa erabilera da. Beste askorentzat, ordea, zaila izan daiteke egunerokoan euskara erabiltzea, Euskal Herrian bizi dugun egoera diglosikoa dela eta. Horientzat zailagoa izango da elebidun orekatuak bihurtzea. Baina elebidunak dira, zalantzarik gabe. Elebidun mota ugari dago. Pertsona bakoitzeko elebidun mota ezberdin bat.

Hizkuntzariok elebidunak sailkatzeko gutxienez bi aldagai nagusi hartzen ditugu kontutan: bigarren hizkuntzaren (H2aren) jabetze adina eta bigarren

hizkuntzaren erabileran lortutako gaitasuna. Gaitasuna hainbat modalitatetan neurtzen da: ekoizpena, ulermena, idazmena eta irakurmena. Normalean, bi aldagai horien arteko harremana oso estua da, eta H2a goiz ikasten dutenek, etxean jaiotzetik edo eskolan 3-4 urterekin, bi hizkuntzetan gaitasun maila altua izan ohi dute. Horiek dira «gaitasun altuko» jaiotzatiko elebidunak eta elebidun goiztiarrak. Bestalde, 10 urtetik aurrera H2a ikasten dutenei «elebidun berantiarrek» deitu ohi zaie, nahiz eta hizkuntza bat ikasteko inoiz ez izan berandu. Elebidun berantiarrek, sarritan gaitasun maila baxua izaten duten arren, gaitasun maila altua lor dezakete H2an. Beraz, bi aldagaien artean harreman estua dago, baina bata ez du bestea erabat baldintzatzen, eta horretan hizkuntzaren erabilerak paper garrantzitsua jokatzen du.

Hizkuntza erabileraren efektuak oso nabariak izan ohi dira hiztunen H2an. Normalean, euskara eskolan edo euskaltegian ikasteaz gain, kalean edo etxean erabiltzen dutenak izango dira gaitasuna azkarrago garatzen dutenak. Bestalde, erabilera ezak ikasitakoa galtzea ekarri ohi du. Eta ez H2an bakarrik. H1a erabiltzeari uzteak edo gutxi erabiltzeak H1aren gaitasunean ere eragina izan dezakeela erakutsi dute hainbat ikerketek. Lan entzutetsuenetako bat 5-6 urtetik

aurrera Frantzian adopzioan hazitako haur Korearra da (Pallier *et al.*, 2003). 20 urtez H1a entzun gabe egon eta gero, 26 urte inguruko gazte horiek korearra erabat galduta zuten. Ezezagunak ziren hainbat hizkuntzen artean korearra identifikatzean, eta antzeko beste ariketetan, adoptatutako partaideek korearra inoiz entzun ez zuten jaiotzatiko frantsesek bezain emaitza kaskarrak atera zituzten. Erresonantzia magnetikoa erabiliz, hizkuntza bat ulertzerakoan aktibatzen diren burmuineko atal ugariak irudikatzen dira. Baina gazte horien burmuinean H1-korearra edo ezezagunak zitzaizkien japoniera edo poloniera entzuteak aktibazio berbera erakutsi zuen. Korearrak ez zuten ulertzen. Muturreko kasu bat izan arren, honek erakusten du jaiotzetiko hizkuntza erabat erabiltzeari utziz gero, erabat galdu daitekeela.

Muturretara joan gabe, badaude agina ezagunak egiten zaizkigun beste egoera batzuk ere. Adibidez, atzerrian luze bizi ondoren, etxera bueltatu eta H1eko jariora moteldu zaien elebidunena. Bartzelonako Unibertsitateko ikerlari batzuek irudien izendatze ariketa sinple bat erabili zuten fenomeno hau erabilera maiztasunagatik gertatzen dela erakusteko (Baus *et al.*, 2013). Alemaniako ERASMUS ikasle batzuei irudiak H1 alemanieran ahalik eta azkarren izendatzea eskatu zieten,

bi garaitan: Espainiako Kanarietara ailegatu berritan eta Alemaniara bueltatu aurretik. Sei hilabetez gaztelera ikasi eta erabili ondoren, elebidun hauek *astoa, limoia, katua* eta antzeko irudiak motelago izendatu zituzten euren H1 alemanean, Kanarietara ailegatu berritan egin zutena baino. Beraz, emaitzek erakusten dute hizkuntza bat erabiltzeari uzten zaionean, apurka-apurka hizkuntza hori ekoizteko «gaitasuna» beherantz joaten dela. Baita jaiotzatiko hizkuntza bada ere.

Burmuinak malgutasun itzela du egoera berrietara egokitzeko. Egunero erabiltzen d(it)ugun hizkuntza(k) ekoizteko beharrezkoak diren konexioak indartzen ditu, eta erabiltzen ez ditugunak ahultzen. Hori hizkuntzaren prozesamenduan oso nabarmenak diren erabilera maiztasunaren eta prozesamendu abiaduraren arteko korrelazioan islatzen da: gutxiago erabiltzen diren hitzak eta egiturak motelago prozesatzen dira, hiztun elebakarra zein elebiduna izan. Adibidez, elebakarrekin konparatuta, elebidunek hiztegi zabalagoa dute, edozein objektu izendatzeko gutxienez bi aukera baitituzte. Baina denbora erdia gaztelerez eta beste erdia euskaraz aritzen badira, hitz zehatz bakoitzaren erabilera maiztasuna elebakarrean baino txikiagoa izango da. Ondorioz, gaztelera-ingelera (Gollan *et al.*, 2006) edo gaztelera-katalana elebidunen (Ivanova eta Costa, 2006) ekoizpenari buruzko ikerketek erakutsi dute elebidunen hitzen ekoizpen abiadura elebakarrean baino milisegundo gutxi batzuk motelagoa dela, euren H1ean hitz egiterakoan. Emaitza horiek gaztelera-euskara elebidun goiztiar orekatuekin ere berretsi ditugu (Baus, Santesteban *et*

*al.*, 2020). Baina lasai, milisegundo gutxi horiek burmuinarentzat adierazgarriak izan arren, egunerokoan inor ez da gai izango H1 gaztelera-H2euskara elebidun goiztiarra edo gaztelaniadun elebakarra zaren asmatzeko.

Laburbilduz, hizkuntzak burmuinean bizirik mantentzeko, erabili egin behar dira. Berdin du H1a edo H2a izan. Gure gizarte diglosiko honetan, gaztelaren erabilera bermatuta dugu, baina hiztunei euskararen erabilera gizarteko esparru guztietan bermatzea eta sustatzea da aurrean dugun erronka nagusia. Ez du axola zein motatako elebiduna zaren, goiztiarra ala berantiarra. Hizkuntza gaitasun altua lortzeko eta mantentzeko, nahitaezkoa da erabilera. Ikasten ari bazara, zure H1ak ez dituen ezaugarriak ikastea apur bat gehiago kostatu ahal zaizu. Eta gaitasun handia lortu arren, zure burmuinak ziurrenik ez du H2a jaiotzatiko hiztun baten moduan prozesatuko. Adibidez, UVP/EHUko Gogo Elebiduna ikertaldeko lankideek erakutsi dute H2euskaran gaitasun altua duten elebidun goiztiarrek zuzen prozesatzen dituztela euren H1ak ez duen ergatiboa (Díaz, Erdocia *et al.*, 2016) edo H1ean ezberdinak diren hitz ordena (Erdocia eta Laka, 2018; Erdocia *et al.*, 2009) eta aditz komunztadura (Zawiszewski, *et al.* 2011). Baina, hala ere, neurri elektrofisiologikoen erakusten dute elebidun horien burmuinak ezberdin prozesatzen dituela ezaugarri horiek jaiotzatiko euskaldunen burmuinarekin konparatuta. Azken batean, elebitasun mota ugari daude. Bi hizkuntza hitz egiten dituen edonor da elebiduna, eta elebitasun mota guztiak dira beharrezkoak. ■

## AIPAMENAK

- Baus, C., Costa, A., eta Carreiras, M. (2013). "On the effects of second language immersion on first language production". *Acta Psychologica*, 142, 402-409.
- Baus, C., Santesteban, M., Runnqvist, E., Strijkers, K., eta Costa, A. (2020). "Characterizing lexicalization and self-monitoring processes in bilingual speech production". *Journal of Neurolinguistics*, 56, 100934.
- Díaz, B., Erdocia, K., de Menezes, R.F., Mueller, J.L., Sebastian-Galles, N. eta Laka, I. (2016). "Electrophysiological correlates of second-language syntactic processes are related to native and second language distance regardless of age of acquisition". *Frontiers in Psychology*, 7:133.
- Erdocia, K. eta Laka, I. (2018). "Negative transfer effects on L2 word order processing". *Frontiers in Psychology*, 9:337.
- Erdocia K., Laka I., Mestres A., eta Rodríguez-Fornells A. (2009). "Syntactic complexity and ambiguity resolution in a free word order language: behavioral and electrophysiological evidences from Basque". *Brain and Language*, 109, 1-7.
- Gollan, T. H., Montoya, R. I., Cera, C., eta Sandoval, T. C. (2008). "More use almost always means a smaller frequency effect: Aging, bilingualism, and the weaker links hypothesis". *Journal of Memory and Language*, 58, 787-814.
- Ivanova, I., eta Costa, A. (2008). "Does bilingualism hamper lexical access in speech production?". *Acta Psychologica*, 127, 277-288.
- Pallier C, Dehaene S, Poline JB, LeBihan D, Argenti AM, Dupoux E, eta Mehler J. (2003). "Brain imaging of language plasticity in adopted adults: Can a second language replace the first?". *Cerebral Cortex*, 3(2), 155-161.
- Zawiszewski A., Gutiérrez E., Fernández B., eta Laka, I. (2011). "Language distance and non-native syntactic processing: evidence from event-related potentials". *Bilingualism: Language and Cognition*, 14 (03), 400-411.